# Xedapen Orokorrak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 7012

AGINDUA, 2008ko abenduaren 3koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako Gobernu Batzordeetako kideek aurreikuspen sozialaren arloan duten prestakuntzari buruzkoa.

Etorkizunean pentsiodunak izango diren pertsonen eskubideen mesederako izango den kudeaketa eraginkorra faboratzeko, enpleguko pentsioen funtsen jarduerei eta ikuskapenari buruzko ekainaren 3ko 2003/41/EB Zuzentarauak enplegu-sistemak kudeatzeko trebakuntzari eta esperientziari buruzko baldintzak barne hartzen ditu. Horrela, esparru horretan inskribatua dagoen borondatezko aurreikuspen sozialeko erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak arazo hori barne hartzen du, eta horretaz gain, gobernu-organoen trebakuntza ere azpimarratzen du.

Halaber, eta zabalagoa den ikuspegi batetik, 2006an Eusko Jaurlaritzak onartutako Aurreikuspen Sozial Osagarriaren Planaren jardun-ildoetako baten bitartez kudeaketa-prestakuntzaren estandarrak hobetzea eta prestakuntza-eskaria bera sustatzea nahi da, bai gobernu-organoei dagokienez, bai Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako teknikariei dagokienez.

Aktiboen bolumenak eta aurreikuspen teknikoek lortutako zenbaterainokoa kontuan hartuz, eta haien bilakaera alde batera utzi gabe, ezinbestekoa da bi eremu horietako (teknikoa eta gizarte-ordezkaritzakoa, hain zuzen ere) prestakuntza hobezinaz arduratzea. Prestakuntza funtsezko pieza gisa jasotzen da, erabakiak hobeki har daitezen bermatzeari dagokionez. Gobernu-organoek behar adina ezagutza eduki behar dute euren egitekoak behar bezala gauzatu ahal izateko eta dituzten betebeharrak honako hauek lortuz betetzeko: pertsona elkartuen kolektiboaren eskubideak eta prestazioak hobeki babestea, arriskuak kontrolatzea eta pentsio-sistemen administrazio zuzena sustatzea.

Gutxienez, honako hauek lortu nahi dira: Gobernu Batzordeetako kide guztiek euren egitekoak uler ditzaten, eta dituzten betebehar eta erantzukizunak direla-eta, erabili eta ulertu behar dituzten agiri eta kontzeptuekin (juridikoak, aktuarialak, inbertsiorakoak, eta kudeaketarekin eta zergekin lotutakoak) eroso senti daitezen. Alabaina, gehiago ere lortu nahi da, irismen handiagoko prestakuntza-ibilbide bat sustatuz. Xede hori lortu ahal izateko, «zer» (ikastaroen edukiak)

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 7012

ORDEN de 3 de diciembre de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, sobre formación en previsión social de los miembros de las Juntas de Gobierno de las Entidades de Previsión Social Voluntaria.

En aras de favorecer una gestión eficaz que redunde en beneficio de los derechos de las personas que el día de mañana serán pensionistas, la Directiva 2003/41/CE, de 3 de junio, relativa a las actividades y supervisión de fondos de pensiones de empleo incluye requisitos sobre la cualificación y experiencia en la gestión de los sistemas de empleo. Así, inscrito en este marco, el Decreto 92/2007, de 29 de mayo, por el que se regula el ejercicio de determinadas actividades de las Entidades de Previsión Social Voluntaria, incorpora esta cuestión y pone, también, el acento en la cualificación de los órganos de gobierno.

Así mismo, y desde una perspectiva más amplia, una de las líneas de actuación del Plan de Previsión Social complementaria, aprobado por el Gobierno Vasco en 2006, pretende mejorar los estándares de la formación en gestión y fomentar la propia demanda formativa tanto por parte de los órganos de gobierno como por la del personal técnico de las Entidades de Previsión Social Voluntaria.

Dado el tamaño ya alcanzado por el volumen de los activos y las provisiones técnicas y teniendo en cuenta su evolución, velar por una óptima formación de ambas esferas (técnica y de representación social) resulta inexcusable. La formación se erige en pieza esencial de cara a asegurar la mejora en la toma de decisiones. Los órganos de gobierno deben contar con el conocimiento suficiente para desempeñar su función correctamente, cumplir sus obligaciones protegiendo mejor los derechos y prestaciones del colectivo de personas asociadas, controlando los riesgos y promoviendo la correcta administración de los sistemas de pensiones.

La pretensión mínima es la de que todos los miembros de las Juntas de Gobierno comprendan sus funciones y se sientan cómodos con los documentos y conceptos jurídicos, de inversión, actuariales, de gestión y fiscales que, en razón de sus obligaciones y responsabilidades, deben manejar y conocer. Sin embargo, se quiere ir más allá, promoviendo un itinerario formativo de mayor alcance. Con este propósito, la explicitación del qué (contenidos de los cursos), quién (instancias autori-

eta «nortzuk» (ikastaro horiek emateko baimena duten instantziak) zehaztea da agindu honen mamia.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Erabakiak ezin hobeki hartzeko modua eta Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetan elkartutako pertsonen eskubideen mesederako jokatuko duen kudeaketa eraginkorra lortzea faboratzeko, agindu honek honako helburu hauek ditu:

a) Aurreikuspen sozialari buruzko prestakuntza-ikastaroen kontzeptua arautzea.

b) Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 2. artikuluaren arabera Gobernuko organoei exijitzen zaien oinarrizko trebakuntzaren ezinbesteko baldintza betetzeko modua zehaztea.

c) Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako Gobernu Batzordeak osatzen dituzten kideen prestakuntza sustatzea, gutxieneko arau-eskakizunetatik haratago.

Helburu horiek lortu ahal izateko, agindu honek honako hauek arautuko ditu:

1.– 92/2007 Dekretuan jasotzen den aurreikuspen sozialeko prestakuntzaren kontzeptua eta horren modalitateak xedatzea. Horretarako, lehentasunezko interesa duten prestakuntza-moduluak zehaztuko dira.

2.– Lehentasunezko interesa duten prestakuntza-moduluak irakasteko baimena lor dezaketen instantziak egiaztatzeko prozedura.

3.– Euskadiko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen Erregistroaren barruan sail berezi bat ezartzea, erakunde horietako Gobernu Batzordeen prestakuntza-mailari buruzkoa.

***2. artikulua.***– Aurreikuspen Sozialeko prestakuntza-ikastaroen kontzeptua.

Agindu honen bitartez, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeek euren kideei eskaini ahal izango dizkieten prestakuntza-ikastaro ezberdinak ezartzen dira, aurreikuspen sozialari buruzkoak; Gobernu Batzordeak osatzen dituzten kideen artean zein Aurreikuspen Sozialeko Erakundeei atxikita dauden baina Gobernu Organoetakoak ez diren pertsonei eskaini ahal izango zaizkie ikastaro horiek.

Ikastaro horien helburua honako hau da: jarraibideak ezartzea eta Erakundearen kudeaketari edo ordezkaritzari behar bezala heldu ahal izateko irizpidea eta prestakuntza edukitzea.

***3. artikulua.***– Lehentasunezko interesa duten prestakuntza-moduluak.

Bi motatakoak izango dira:

1.– Oinarrizko prestakuntza-ikastaroa.

zadas a impartirlos) y cómo (ayudas económicas para la financiación de los cursos) constituye el núcleo central de la presente Orden.

En su virtud,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

En aras de favorecer una óptima toma de decisiones y una gestión eficaz que redunde en beneficio de los derechos de las personas asociadas a las Entidades de Previsión Social Voluntaria, la presente Orden tiene por objeto:

a) Regular el concepto de los cursos de formación en materia de previsión social.

b) Definir el modo de cumplimiento del requisito obligatorio de cualificación básica exigida a los órganos de Gobierno en virtud del artículo 2 del Decreto 92/2007, de 29 de mayo.

c) Promover la formación de los miembros que componen las Juntas de Gobierno de las Entidades de Previsión Social Voluntaria, más allá de las exigencias normativas mínimas.

Para el cumplimiento de estos fines, la Orden va a regular las siguientes cuestiones:

1.– La determinación del concepto de formación en previsión social recogido en el Decreto 92/2007 y sus modalidades, definiendo los módulos formativos de interés preferente.

2.– Procedimiento de acreditación de las instancias que pueden obtener autorización para impartir los módulos formativos de interés preferente.

3.– Establecimiento de una sección especial dentro del Registro de Entidades de Previsión Social Voluntaria de Euskadi relativo al grado de formación de las Juntas de Gobierno de las mismas.

***Artículo 2.***– Concepto de los cursos de formación en Previsión Social.

Por la presente Orden se establecen los diferentes cursos de formación en materia de previsión social que las Entidades de Previsión Social Voluntarias podrán ofertar entre sus miembros, tanto los que componen las Juntas de Gobierno y como los que estando adscritos a las Entidades de Previsión Social no forman parte de los Órganos de Gobierno.

La finalidad de los cursos es poder establecer directrices y tener criterio y formación suficiente para abordar correctamente la gestión de la Entidad o delegación de la misma.

***Artículo 3.***– Módulos formativos de interés preferente.

Los módulos formativos serán de dos tipos:

1.– Curso formativo básico.

a) Hartzaileak.

a.1.– Oinarrizko modulua Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako gobernu-organoetako kideen prestakuntzara bideratuko da, kide horiek behar adina titulazio edota sektore horretan hiru urteko esperientzia egiztatua ez badute, eta beraz, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 2. artikuluan eskatzen den trebakuntzara iristen ez badira.

a.2.– Orobat, adierazitako Dekretuan hitzartutako trebakuntza-exijentzia horiek betetzen badituzte ere, interesgarria baderitze, honako hauek ere joan ahal izango dira ikastaro horietara: gobernu-organoetako edozein pertsona, BASEetan txertatutako aurreikuspen-planetako edozein ordezkari eta BASEetako edozein langile.

b) Ikastaroaren edukia.

Bi atal desberdinez osatua dago:

b.1.– On-line edo presentziazko prestakuntza; honako ikasgai-zerrenda garatuko da:

+ Pentsio-sistema kapitalizatuen funtzionamendua.

– Jatorria eta historia.

– Ezaugarri nagusiak (kapitalizazioa, interes-tasa konposatua, kapital/errenta konbertsio-faktoreak eta abar).

– Erakunde-motak. Bestelako pentsio-erakundeak.

– Egitura eta ezaugarri nagusiak (PD/AD, sarbidea, erretirorako adina, etendako bazkidea, eta abar).

– Gizarte Segurantza.

– Aurreikuspen-sistemen helburuak eta pentsio publikoekiko lotura.

– Organismo publiko eskudunak.

– Kanpoko eragileen harremanak eta egitekoak; honako hauek dira kanpoko eragileak: aktuarioak, aholkulari juridikoak, ondare-aholkulariak, gordailuzainak, pentsio-sistemei buruzko aholkulariak, emaitzen analisigileak, administrazio-kudeatzaileak, kontu-ikuskariak eta abar.

+ Aurreikuspen osagarriaren esparru juridikoa.

– Sarrera.

– Oinarrizko eduki-araudia.

– Zerga-araudia.

– Estatu-esparruari eta Europako esparruari buruzko erreferentzia laburra.

– Batzordeetako kideen betebeharrak eta erantzukizunak.

+ Erakundearen ondarearen inbertsioaren printzipioak ezagutzea eta ulertzea.

– Inbertsio-politikaren printzipio orokorrak (dibertsifikazioa, arriskua/errentagarritasuna, epea, likidezia, interes-tasen eragina, ziklo ekonomikoa, kongruentzia, batez bestekora itzultzea, informazio-iturriak eta abar).

a) Personas destinatarias.

a.1.– El módulo básico está destinado a la formación de los miembros de los órganos de gobierno de las EPSV que no cuenten con titulación suficiente ni experiencia acreditada de tres años en el sector y que, por tanto, carecen de la capacitación suficiente requerida en el artículo 2.º del Decreto 92/2007, de 29 de mayo.

a.2.– Podrán asistir, así mismo, todas las personas de los órganos de gobierno, los representantes de los planes de previsión integrados en una EPSV o el personal de las EPSV que lo estimen de interés, aunque cumplan ya con las exigencias de cualificación estipuladas en el citado Decreto.

b) Contenido del curso.

Consta de dos bloques diferenciados:

b.1.– Formación on-line o presencial en la que se desarrollará el siguiente temario:

+ Funcionamiento de los sistemas de pensiones capitalizados:

– Origen e historia.

– Principales características (capitalización, tipo de interés compuesto, factores de conversión capital/renta...).

– Tipos de entidades. Otras entidades de pensiones.

– Estructura y principales características (PD/AD, acceso, edad de jubilación, socio en suspenso, etc.)

– Seguridad social.

– Objetivos de los sistemas de previsión y la relación con las pensiones públicas.

– Organismos públicos competentes.

– Relaciones y funciones de los agentes externos como son:, actuarios, asesores jurídicos, gestores de patrimonio, depositarios, consultores sobre sistemas de pensiones, analistas de resultados, gestores administrativos, auditores, etc.

+ El marco jurídico de la previsión complementaria.

– Introducción.

– Normativa básica sustantiva.

– Normativa fiscal.

– Breve referencia al marco estatal y europeo.

– Deberes y responsabilidades de los miembros de las juntas.

+ Conocimiento y comprensión de los principios relativos a la inversión del patrimonio de la entidad.

– Principios generales de la política de inversiones (diversificación, riesgo/rentabilidad, plazo, liquidez, efecto de los tipos de interés, ciclo económico, congruencia, reversión a la media, fuentes de información...).

– Aktibo-motak eta horien ezaugarriak.

– Pentsio-fondoen aktiboa eta pasiboa: obligazioak, edo pentsio-sistemen hornikuntza, kapitalizazio-politikak (PDak), eta aktibo/pasiboko tresnak.

– Pentsio-sistemen inbertsio-estrategiak, errentagarritasun/arrisku binomioari dagokionez, eta epe luzeko ikuspegiarekin. Asset Allocation. Zorroak optimizatzea. Kudeaketa-motak (aktiboa, pasiboa, hautazkoa). Inbertsio-tresna berriak.

– Inbertsio Printzipioen Deklarazioa. Alderdi erabakigarriak eta araudia.

b.2.– Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak berak eta Erakundean bertan eman beharreko prestakuntza.

Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak saio monografiko gehigarri bat antolatu beharko du, BASEaren espezialitateen azterketari buruzkoa, hau da, Estatutuen, Araudien, funtzionamendu-arauen eta Erakundeak kanpoko eragileekin dituen zerrendaren aurkezpena. Erakundearen lehendakariak baldintza hori bete dela egiaztatuko du, jardunaldiaren antolakuntzaren oinarrizko xehetasunak eta bertaratutako pertsonen harremanak jasoko dituen idazki sinatu baten bitartez.

Nolanahi ere, araudiei dagokienez ekitaldian gertatutako aldaketei buruzko ezagutzak eguneratzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak jarri beharko ditu BASEak (zirkularren, aurkezpenen eta abarren bitartez).

c) Ikastaroak emateko modalitateak.

c.1.– Presentziazko ikastaroak.

B.1 idatz-zatian adierazitako ikastaroak presentziazko prestakuntzako 12 ordu edukiko ditu gutxienez, eta gutxienez hiru saiotan (bakoitza lau ordukoa) banatuko dira prestakuntza-ordu horiek. Urterokoak izango dira prestakuntza-jardunaldi horiek.

c.2.– On-line ikastaroak.

Oinarrizko ikastaroaren irisgarritasun unibertsala errazteko, eta ikastaroaren presentziazko modalitatearen alternatiba gisa, Internet bidez on line ere gauzatu ahal izango da.

BASEek, prestakuntza-maila betetzeko dituzten premien arabera, Internet bidezko sarbidea eskatuko diote Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzari, Erakundearen Gobernu Batzordeko kideentzat. Adieraziko den Internet-helbidean eskuragarri egongo da ikastaroa, eta epe mugatu bat ezarriko da sistemako lehen sarreratik aurrera ikastaroa burutzeko. On-line ikastaroak presentziazko ikastaroaren antzeko batezbesteko iraupena edukiko du. On-line ikastaroko ikasleek posta elektroniko bidezko eta telefono bidezko tutoretza-zerbitzua edukiko dute eskueran, ikastaroa egitean sor litezkeen zalantzak argitu ahal izateko.

– Clases de activos y características.

– Activo y pasivo de los fondos de pensiones: las obligaciones, o provisiones de los sistemas de pensiones, las políticas de capitalización (PD), instrumentos de activo/pasivo.

– Estrategias de inversión de los sistemas de pensiones en términos del binomio de rentabilidad-riesgo y con una perspectiva de largo plazo. Asset Allocation. Optimización de carteras. Tipos de gestión (activa, pasiva, alternativa). Nuevos instrumentos de inversión.

– Declaración de Principios de Inversión: aspectos clave y normativa.

b.2.– Formación a proporcionar por y en la propia Entidad de Previsión Social Voluntaria.

La Entidad de Previsión Social Voluntaria deberá organizar una sesión monográfica adicional de análisis de las especificidades de la EPSV, es decir, una presentación de sus Estatutos, Reglamentos, normas de funcionamiento y relaciones que mantiene la Entidad con agentes externos. El Presidente de la Entidad certificará el cumplimiento de este requisito a través de un escrito firmado donde se recogerán los detalles básicos de la organización de la jornada y la relación de las personas asistentes.

En todo caso, la EPSV deberá facilitar los medios necesarios para la actualización de conocimientos en relación a cambios normativos relevantes que se hayan producido en el ejercicio (a través de circulares, presentaciones, etc.).

c) Modalidades de impartición de los cursos.

c.1.– Cursos presenciales.

El curso al que se refiere el apartado b.1 constará de un mínimo de 12 horas de formación presencial, repartidas en un mínimo de tres sesiones de cuatro horas de duración cada una. Las jornadas de formación serán anuales.

c.2.– Cursos on-line.

Con el objetivo de facilitar el alcance universal del curso básico y como alternativa al curso en su modalidad presencial, se podrá realizar el curso vía on-line a través de Internet.

Las EPSV en función de sus necesidades de cumplimiento del grado de formación solicitarán el acceso vía Internet para los miembros de la Junta de Gobierno a la Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco. El curso estará disponible en la dirección que se indique de Internet y se dispondrá de un plazo limitado para la realización de un curso desde la primera entrada al sistema. La duración media del mismo será similar al curso presencial. El alumno del curso on-line tendrá a su disposición un servicio de tutoría vía electrónica y vía telefónica para solventar las dudas que pudieran surgirle durante la realización del curso.

d) Prestakuntza-jarduera burutu dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak izendun ziurtagiri ofiziala emango die ikastaroaren edozein modalitate burutu duten pertsona guztiei. Ikastaroak emateko baimena duen instantziak izapidetuko du ziurtagiri horien eskaera. Oinarrizko ikastaroa egin behar duten Gobernu Batzordeetako kideen kasuan (maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 2. artikuluaren arabera), eskaera horrekin batera, BASEaren lehendakariaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da; kide hori Erakundearen espezifikotasunak aztertzeko modulura ere joan dela jaso beharko du (3.1.b.2 idatz-zatia) lehendakariaren ziurtagiri horrek.

e) Ikastaroaren baldintzak.

Euskadiko BASEen Erregistroan inskribatutako Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakunde guztiek, behar adinako aurrerapenarekin, ikastaroaren xehetasunei eta izen emateko eskaera izapidetzeko prozedurari buruzko informazio guztia jasoko dute. Gobernu Batzordeko kide guztien artean zabaldu beharko da informazio hori.

Era berean, BASEek oinarrizko ikastaroak antolatu eta kudeatu ahal izango dituzte, euren baliabideekin. Eusko Jaurlaritzak ikastaroan parte hartu duten pertsonei ziurtagiriak emateko, emandako gutxieneko edukiak agindu honetako 3.1.b.1 idatz-zatian ezarritakoak direla frogatu beharko du Erakundeak.

2.– Ikastaro aurreratuak.

a) Hartzaileak.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten Gobernu Batzordeetako kideei zuzenduko zaizkie modulu aurreratuak: oinarrizko modulua burutua edukitzea, edota behar adina titulazio edo aurreikuspen sozialaren sektorean gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatua edukitzea, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta baita Aurreikuspen Sozialeko Erakundeei atxikita dauden baina Gobernu Organoetakoak ez diren langileei ere.

b) Era berean, modulu aurreratuak bi motatakoak izan daitezke:

b.1.– Modulu aurreratu orokorrak; horrelako moduluak beteko dituzten eremuak oinarrizko moduluetan aurreikusitakoak baino sakontasun eta ardura handiagoz gauzatuko dira. Honako eremu hauetakoren bat beteko dute:

– Praktika onen eta gobernaketa onaren kodeen azterketa, pentsio-sistemen kudeaketari aplikatuak.

– Oinarrizko eduki-araudia.

– Fiskalitatea.

d) Certificados acreditativos de la actividad formativa.

El Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social expedirá un certificado oficial nominativo para cada persona que ha realizado el curso en cualquiera de sus modalidades. La solicitud de los certificados será tramitada por la instancia autorizada para impartir los cursos. En el caso de miembros de las Juntas de Gobierno que deben realizar el curso básico (según el artículo 2 del Decreto 92/2007, de 29 de mayo), dicha solicitud deberá venir acompañada del certificado del Presidente de la EPSV en el que conste que ha asistido, además, al módulo de análisis de las especificidades de la Entidad (apartado 3.1.b.2).

e) Condiciones del curso.

Todas las Entidades de Previsión Social Voluntaria inscritas en el Registro de EPSV de Euskadi, recibirán, con la antelación suficiente, cumplida información de los detalles del curso y el procedimiento para tramitar la solicitud de inscripción. Esta información deberá ser difundida entre todos los miembros de la Junta de Gobierno.

Las propias EPSV podrán, también, organizar y autogestionar, con recursos propios, un curso básico. Los certificados acreditativos serán extendidos por el Gobierno Vasco a las personas participantes siempre y cuando la Entidad demuestre que los contenidos mínimos impartidos han sido los establecidos en el apartado 3.1.b.1. de la presente Orden.

2.– Cursos avanzados.

a) Personas destinatarias.

Los módulos avanzados están destinados a todos aquéllos miembros de las Juntas de Gobierno que hayan cursado el módulo básico o que cuenten con titulación suficiente o experiencia acreditada de tres años en el sector de previsión social, de acuerdo con lo establecido en el artículo 2 del Decreto 92/2007, de 29 de mayo, por el que se regula el ejercicio de determinadas actividades de las Entidades de Previsión Social Voluntaria. Así como al personal que no perteneciendo a la Junta de Gobierno está adscrito a la Entidades de Previsión Social Voluntaria.

b) Los módulos avanzados podrán ser, a su vez, de dos tipos:

b.1.– Módulos generales avanzados, que cubrirán alguna de las siguientes áreas, con una profundidad y dedicación significativamente mayores a las previstas, en su caso, en el módulo básico:

– Análisis de buenas prácticas y códigos de buen gobierno, aplicados a la gestión de los sistemas de pensiones.

– Normativa básica sustantiva.

– Fiscalidad.

– Aurreikuspen sozialeko sistemen printzipio aktuarialak eta diseinua. Inbertsio-profilak eta aukerak. Aseguramendua eta berrasegurua.

– Pentsio-sistemen eraketa, dokumentazioa, administrazioa eta finantzaketa.

– Bazkidearekiko komunikazioa eta informazioa, pentsio-sistemen kudeaketa, giza baliabideak, ordainketa eta aurreikuspen osagarria.

b.2.– Inbertsioen kudeaketari buruzko modulu espezifikoa.

– Kapitalen merkatuen jokabidea epe luzean.

– Aktibo-mota garrantzitsuenak eta horien ezaugarriak, arrisku/errendimendu binomioa barne hartuta.

– Atzerriko inbertsioaren ondorioak, aldaketarako arriskua eta hori kontrolatzeko sistemak (esaterako, estaldura monetarioa) barne hartuta.

– Aktibo espezializatu motak, tresnak eta teknikak, eta kasu bakoitzari aplika daitekeen arrisku/errendimentu profilaren nondik norakoak.

– Prestazio Definituko planetan, inbertsio-politikaren helburuak (arrazoiak barne hartuta), aktibo-moten arteko esleipen/banaketa estrategia eta horrek dakartzan arriskuen balorazioa.

– Ekarpen Definituko planen kasuan, eskainitako hautazko planen maila eta mota zehazteko irizpideak, halakorik badago.

– Izan ere, planak inbertitzen dituen aktibo espezifiko motak (halakorik badago, deribatuak eta monetaren estaldurak barne hartuta), hartutako arrisku-mota eta arrisku horiei jarraipena egiteko eta kontrolatzeko modua.

– Kudeaketa-mandatuen funtsezko baldintzak (kanpoko kudeatzaileentzat), kontratu-mota eta ordaintzen diren komisioak ulertzea barne hartuta.

***4. artikulua.***– Baimena.

Erakunde publikoek zein pribatuek eskatu ahal izango dute aurreikuspen sozialeko prestakuntza-ikastaro ezberdinak emateko baimena, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1.– Aurreikuspen sozialean adituak diren irakasleak edukitzea, eta langile horiek aktuarioen alorreko, zuzenbideko, ekonomia- eta enpresa-zientzietako, edo bestelako goi-mailako titulazioa edukitzea, betiere aurreikuspen sozialean, Gizarte Segurantza alorrean, aseguru-erakundeetan edo antzekoetan gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzen badute.

2.– Ikasle kopururako egokiak diren instalazioak eta baliabide material eta didaktikoak edukitzea.

3.– Agindu honen 3. artikuluan barne hartutako edukiak aintzat hartuz, prestakuntza-programa bat ezartzea.

– Principios actuariales y diseño de sistemas de previsión social. Perfiles de inversión y opciones. Aseguramiento y reaseguro.

– Constitución, documentación, administración, financiación de los sistemas de pensiones.

– Comunicación e información al socio, gestión de los sistemas de pensiones, recursos humanos, retribución y previsión complementaria.

b.2.– Módulo específico sobre gestión de inversiones.

– Comportamiento de los mercados de capitales en el largo plazo.

– Las principales clases de activos y sus características, incluyendo el binomio riesgo/rendimiento.

– Las implicaciones de la inversión extranjera, incluyendo el riesgo de cambio y los sistemas para controlarlo como la cobertura monetaria.

– Clases de activos especializados, instrumentos y técnicas, y la naturaleza del perfil de riesgo/rendimiento aplicable a cada caso.

– En los planes de Prestación Definida, los objetivos de la política de inversiones (incluyendo sus razones), y la estrategia de la asignación/distribución entre clases de activos y la valoración de riesgos que implica.

– En el caso de planes de Aportación Definida, los criterios para determinar el rango y tipo de los planes opcionales ofrecidos, si existen.

– Las clases específicas de activos en los que el plan, de hecho, invierte (incluidos derivados y coberturas de moneda en su caso), el tipo de riesgo que se asume y la forma en que dichos riesgos son seguidos y controlados.

– Las condiciones fundamentales de los mandatos de gestión (a gestores externos), incluyendo la comprensión del tipo de contrato y las comisiones que se satisfacen.

***Artículo 4.***– Autorización.

Podrán solicitar autorización para impartir los diferentes cursos de formación en previsión social tanto entidades públicas como privadas que cumplan los siguientes requisitos:

1.– Disponer de personal docente experto en previsión social, en posesión de titulación superior en materia actuarial, en derecho, en económicas/empresariales u otra titulación siempre que se acredite una experiencia profesional de tres años en previsión social, en materia de Seguridad Social, en entidades aseguradoras o análogas.

2.– Disponer de instalaciones y medios materiales y didácticos adecuados al número de alumnos.

3.– Establecer, con los contenidos comprendidos en el artículo 3 de la presente Orden, un programa formativo.

Prestakuntza-ikastaro horiek eman nahi dituzten pertsona eta erakundeek Euskadiko BASEen Erregistrora bidali behar dute eskaera, honako agiri hauekin batera:

1.– Eskabide-orri normalizatua (1. eranskina).

2.– Prestakuntza-proiektu globala deskribatzen duen txostena, honako hau zehaztuz:

– Helburu orokorrak eta espezifikoak.

– Prestakuntza-programa, edukiak eta iraupena.

– Aurreikusitako ebaluazio-tresnak.

3.– Giza baliabideei buruzko txostena; irakasleen zerrenda zehaztu beharko da txosten horretan, haien profila eta horietako bakoitzak irakatsiko dituen edukiak adieraziz. Irakasle bakoitzak erakundearekin duen lan-harremana eta titulazioa, prestakuntza espezifikoa, irakaskuntza-esperientzia eta lanbide-esperientzia ere zehaztuko dira txosten horretan. Orobat, irakaskuntzari dagokionez irakasle bakoitzaren gaitasuna Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetakoa edo soilik horietako batekoa den zehaztuko da.

Baimena lortzeko eskaerak oso-osorik betetzen ez badira edo derrigor aurkeztu beharreko agiriekin aurkezten ez badira, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio, akatsa zuzendu dezan edo falta diren agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio ezen, aginduta-koa bete ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela. Kasu horretan, Administrazioak eskabideari buruzko ebazpena espresuki eman beharra dauka, eta baita jakinarazi beharra ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoa betez.

Agindu honetan xedatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde eskatzaileen trebakuntza onartuko duen dagokion administrazio-ebazpena emango du Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzak.

***5. artikulua.–*** Euskadiko BASEen Erregistroko Sail Berezia, Erakunde horien Gobernu Batzordeen kideen prestakuntzari buruzkoa.

BASEetako Gobernu Batzordeetako kideek prestakuntza-maila betetzen dutela baliozkotzat jotzeko, Euskadiko BASEen Erregistroan sail berezi bat sortu da; sail horretan, Erakundeen Gobernu Batzordeetako kide guztien trebakuntza jasoko da, eta era berean, sail horretan jakinaraziko beharko dira kideei dagokienez gertatzen diren aldaketa guztiak, eta baita agindu honen betetze-maila ere.

Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakunde guztiek inprimaki bat bete beharko dute urtero (2. eranskina); inprimaki horretan, honako hauek adierazi beharko dira: batetik, Gobernu Batzordeko kideek prestakuntza-baldintzak betetzen ote dituzten, eta bestetik, Erakundearen prestakuntza-plana. Justizia, Lan eta

Las personas y entidades interesadas en impartir estos cursos de formación, deberán enviar su solicitud al Registro de EPSV de Euskadi con la siguiente documentación:

1.– Ficha normalizada de solicitud (anexo 1).

2.– Informe descriptivo del proyecto global de formación especificando:

– Objetivos generales y específicos.

– Programa de formación, contenidos y duración.

– Instrumentos de evaluación previstos.

3.– Informe sobre recursos humanos disponibles donde se deberá concretar la relación de docentes, con indicación de su perfil y contenidos que impartirá cada persona. Se especificará la relación laboral de cada una de ellas con la entidad y titulación, formación específica, experiencia docente y experiencia profesional. Se concretará, asimismo, su capacitación lingüística para la docencia en una o en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Si las solicitudes de autorización no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación preceptiva, se requerirá a la entidad solicitante para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La Dirección de Trabajo y Seguridad Social dictará la correspondiente Resolución administrativa aprobando la cualificación de las entidades que lo soliciten y cumplan los requisitos de la presente Orden.

***Artículo 5.–*** Sección Especial del Registro de EPSV de Euskadi relativa a la formación de los miembros de las Juntas de Gobierno de estas Entidades.

A los efectos de validar el cumplimiento del grado de formación de los miembros de las juntas de Gobierno de las EPSV, se crea una sección en el Registro de EPSV de Euskadi donde se recogerá la cualificación de todos los miembros de las Juntas de Gobierno de las Entidades y al que se comunicará todas las modificaciones que se produzcan en sus miembros así como el grado de cumplimiento de esta Orden.

Todas las Entidades de Previsión Social Voluntaria deberán cumplimentar anualmente un formulario (anexo 2) sobre el cumplimiento de los requisitos formativos de los miembros de la Junta de Gobierno y sobre los planes de formación de la Entidad. Este formulario será remitido por el Departamento de Justicia,

Gizarte Segurantza Sailak igorriko du inprimaki hori, Erakunde guztiek urtero igortzen duten kontabilitate-estatistikari buruzko informazioarekin batera.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ordezko araubidea.

Agindu honetan administrazio-prozedurari dagokionez aurreikusi ez den guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea bete beharko da.

***Bigarrena.***– Laguntzen deialdiak.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak urtero egin ahal izango du aurreikuspen sozialeko prestakuntzarako laguntzen deialdia.

***Hirugarrena.***– Indarraldiaren hasiera.

Dekretu honen indarraldia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 3a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

Empleo y Seguridad Social junto a la información estadístico contable que se remite anualmente por todas las Entidades.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Régimen supletorio.

En lo no previsto en la presente Orden en cuanto al procedimiento administrativo, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segunda.***– Convocatoria de ayudas.

El Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco podrá realizar, con carácter anual, la convocatoria de ayudas para la formación en previsión social.

***Tercera.*** – Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

# 1. ERANSKINA

## AURREIKUSPEN SOZIALEKO IKASTAROAK EMATEKO BAIMENA LORTZEKO ESKAERA

Erakundearen izena:________________________________________
Kalea:________________________________________Zk.:_____
Udalerria:____________PK:_______Telefonoa:____________ Faxa:____________
E-maila:____________ ________________________________
IFZ:________________________Harremanetarako:__________________

Irakatsi nahi den modulua:

☐ Oinarrizkoa
☐ Aurreratu orokorra
☐ Inbertsioei buruzko aurreratua

| Irakasleak | Titulazioa* | Irakatsiko duen gaia |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

(*) Titulazioaren eta irakatsi nahi diren gai-arloetako esperientziaren fotokopia konpultsatua erantsi beharko da.

Honako agiri hauek erantsi dira (X jarri dagozkien laukitxoetan):

☐ Irakasle aditu bakoitzari dagokion titulazioaren eta esperientziaren fotokopia konpultsatuak.
☐ Prestakuntza-proiektu globala deskribatzen duen txostena.
☐ Giza baliabideei buruzko txostena.
☐ Instalazioak eta baliabide material eta didaktikoak deskribatzen dituen txostena.
☐ Ikastaroan izen eman duten pertsonei emango zaizkien agiriak.

Vitoria-Gasteiz, 200..(e)ko (a).

## 2. ERANSKINA

## GOBERNU BATZORDEETAKO KIDEEN PRESTAKUNTZARI BURUZKO GALDEKETA, BETE BEHARREKOA

### HELBURUAK

1.– Gobernu Batzordearen trebakuntza-baldintzaren betetze-maila ezagutzea.

2.– BASEek dagoeneko gauzatu duten prestakuntza-jarduera eta aurrerantzean gauzatu nahi dutena (teknikarientzat zein Gobernu Batzordeko kideentzat) ezagutzea.

3.– Prestakuntza-gabeziak eta gai interesgarriak atzematea.

### BETE BEHARREKO FITXA

1.– Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundearen identifikazioa.

2.– Kideen profila/trebakuntza.

– Gobernu Batzordea osatzen duten kideen guztizko kopurua.

– Goi-mailako titulazioa eta aurreikuspen sozialean gutxienez hiru urteko esperientzia duten kideen guztizko kopurua.

– Goi-mailako titulazioa eta aurreikuspen sozialean hiru urtetik beherako esperientzia duten kideen guztizko kopurua.

– Goi-mailako titulaziorik ez duten baina aurreikuspen sozialean gutxienez hiru urteko esperientzia daukaten kideen guztizko kopurua.

– Goi-mailako titulaziorik eta aurreikuspen sozialean gutxienez hiru urteko esperientziarik ez duten kideen guztizko kopurua.

3.– Azken urtean gauzatutako prestakuntza-jarduera.

3.1.– Espezifikoki Gobernu Batzordeko kideei zuzendutako prestakuntza-jarduerari emandako arreta, berezko baliabideak barne hartuta.

– Prestakuntza-ekintzen kopurua.
– Emandako denbora (ordu kopurua guztira).
– Partehartzaileen kopurua.

3.2.– Espezifikoki teknikariei zuzendutako prestakuntza-jarduerari emandako arreta, berezko baliabideak barne hartuta:

– Prestakuntza-ekintzen kopurua.

- Emandako denbora (ordu kopurua guztira).

- Partehartzaileen kopurua.

3.3.– Prestakuntza-mota.

– Autoprestakuntza.
– Presentziazko prestakuntza.
– Presentziazkoa ez den prestakuntza.

3.4.– Prestakuntzaren ikasgai-zerrenda.

– Oinarrizko araudia.
– Zerga-araudia.
– Aktuariala.
– Inbertsioak.
– Kudeaketa-plana.
– Gobernaketa Ona.
– Beste bat (zehaztu).

3.5.– BASEak prestakuntzan inbertitutako kopurua adierazi.

4.– Erakundearen prestakuntza-planak.

4.1.– Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak Prestakuntza Plan idatzia dauka; horretan, Gobernu Batzordeko kideen prestakuntza-politika zehazten da.

Bai.
Ez (4.3 galderara joan).

4.2.– Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak Prestakuntza Plan idatzia dauka; horretan, teknikarien prestakuntza-politika zehazten da.

Bai.
Ez (4,4 galderara joan).

4.3.– Erakundeak Prestakuntza Plan idatzirik ez badu, gobernu-organoko kideen ikaskuntza eta autoprestakuntza sustatzera zuzendutako esperientziaren bat gauzatzeko asmorik ba al du?

Bai, esperientzia hori zertan datzan eta emaitzak zein balorazio duen adierazi.
Ez.

4.4.– Erakundeak Prestakuntza Plan idatzirik ez badu, teknikarien ikaskuntza eta autoprestakuntza sustatzera zuzendutako esperientziaren bat gauzatzeko asmorik ba al du?

Bai, esperientzia hori zertan datzan eta emaitzak zein balorazio duen adierazi.
Ez.

4.5.– Prestakuntza Planean edo aurreikusitako prestakuntza-jardueran barne hartutako prestakuntzaren ikasgai-zerrenda.

– Oinarrizko araudia.
– Zerga-araudia.
– Aktuariala.
– Inbertsioak.
– Kudeaketa-plana.
– Gobernu Ona.
– Beste bat (zehaztu).

Oharrak

----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

*ANEXO 1*

*SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN PARA IMPARTIR CURSOS DE FORMACIÓN EN PREVISIÓN SOCIAL*

*Nombre entidad:*______________________________

*Calle:*______________________________*N.º:*______________

*Municipio:*______________*CP:*________*Teléfono:*______________ *Fax:*______________

*E-mail:*______________ ______________________________

*NIF:*______________________________*Persona de contacto*______________________________

*Módulo a impartir:*

☐ *Básico*
☐ *Avanzado general*
☐ *Avanzado de inversiones*

| *Personal docente* | *Titulación** | *Tema a impartir* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

*(*) Se debe adjuntar fotocopia compulsada de la titulación y experiencia en las áreas temáticas que van a impartir.*

*Se adjunta la siguiente documentación (marcar con X la casilla correspondiente):*

☐ *Fotocopias compulsadas de la titulación y experiencia de cada persona docente experta.*
☐ *Informe descriptivo del proyecto global de formación.*
☐ *Informe sobre recursos humanos.*
☐ *Informe descriptivo sobre instalaciones y medios materiales y didácticos.*
☐ *Documentación que se entregará a las personas inscritas en el curso.*

*Vitoria-Gasteiz, a de 200*

*ANEXO 2*

*CUESTIONARIO A CUMPLIMENTAR EN RELACIÓN A LA FORMACIÓN DE LOS MIEMBROS DE LAS JUNTAS DE GOBIERNO*

*OBJETIVOS*

*1.– Conocer el grado de cumplimiento del requisito de cualificación de la Junta de Gobierno.*

*2.– Conocer la actividad formativa realizada y que se piensa realizar por la EPSV tanto para su personal técnico como para los miembros de la Junta de Gobierno.*

*3.– Detectar carencias formativas y temas de interés.*

*FICHA A CUMPLIMENTAR*

*1.– Identificación de la Entidad de Previsión Social Voluntaria.*

*2.– Perfil/cualificación de los miembros.*

*– N.º total de miembros que componen la Junta de Gobierno.*

*– N.º total de miembros que tienen titulación superior y experiencia en previsión social superior a 3 años.*

*– N.º total de miembros que tienen titulación superior y experiencia de menos de 3 años.*

*– N.º total de miembros que no tienen titulación superior pero tienen experiencia en previsión social de más de 3 años.*

*– N.º total de miembros que no tienen titulación superior ni experiencia en previsión social superior a 3 años.*

*3.– Actividad formativa realizada en el último año.*

*3.1.– Dedicación a la actividad formativa específicamente orientada a los miembros de la Junta de Gobierno, incluyendo recursos propios.*

*– Número de actuaciones formativas.*
*– Tiempo dedicado (n.º total de horas).*
*– Número de participantes.*

*3.2.– Dedicación a la actividad formativa específicamente orientada al personal técnico, incluyendo recursos propios.*

*– Número de actuaciones formativas.*
*– Tiempo dedicado (n.º total de horas).*
*– Número de participantes.*

*3.3.– Tipo de formación.*

*– Autoformación.*
*– Formación presencial.*
*– Formación no presencial.*

*3.4.– Temario formativo.*

*– Normativa básica.*
*– Normativa fiscal.*
*– Actuarial.*
*– Inversiones.*
*– Plan de gestión.*
*– Buen Gobierno.*
*– Otro (especificar).*

*3.5.– Indique qué cantidad ha invertido la EPSV en formación.*

*4.– Planes de formación en la Entidad.*

*4.1.– La Entidad de Previsión Social Voluntaria cuenta con un Plan de Formación escrito en el que se establece la política de formación de los miembros de la Junta de Gobierno.*

*Sí.*
*No (pasar a 4.3).*

*4.2.– La Entidad de Previsión Social Voluntaria cuenta con un Plan de Formación escrito en el que se establece la política de formación del personal técnico.*

*Sí.*
*No (pasar a 4.4.).*

*4.3.– En el caso de que no disponga de un Plan de Formación escrito, ¿la EPSV piensa desarrollar alguna experiencia orientada a fomentar el aprendizaje y la autoformación de los miembros de los órganos de gobierno?*

*Sí, explicar en qué consiste y cuál es la valoración del resultado.*
*No.*

*4.4.– En el caso de que no disponga de un Plan de Formación escrito, ¿la EPSV desarrolla alguna experiencia orientada a fomentar el aprendizaje y la autoformación del personal técnico?*

*Sí, explicar en qué consiste y cuál es la valoración del resultado.*
*No.*

*4.5. Temario formativo contemplado en el Plan de Formación o actividad formativa prevista.*

*– Normativa básica.*

*– Normativa fiscal.*

*– Actuarial.*

*– Inversiones.*

*– Plan de gestión.*

*– Buen Gobierno.*

*– Otro (especificar).*

*Observaciones*

-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------